



12 Ulertze-jarduera

1 Irakurri definizioak, eta lotu dagokien egoerarekin.

SOLIDOA

LIKIDOA

GASA

DEFINIZIOA	MATERIAREN EGOERA
1 Gorputzen masaren forma aldakorra da (ontziaren forma hartzen dute), eta bolumena ez da presioaren eraginez aldatzen.	
2 Gorputzen masa forma egonkorra da, eta presioaren eraginez bolumena ez da aldatzen.	
3 Gorputzen masaren forma aldakorra da (ontziaren formaren arabera), eta bolumena presioaren eraginez aldatzen da.	

2 Materia edo gorputzak partikula oso txikiz osaturik daude. Ikus ezazu irudi hauetan nola elkar daitezkeen partikula horiek. Zein egoerarekin erlazionatuko zenuke argazki bakoitza?

A	B	C

3 Lotu esplikazioak (I, II, III) eta irudiak (A,B,C), eta adierazi 1. ariketako zein definiziori dagozkien (1, 2, 3).

I	II	III
Partikula txikiak ez daude elkarrengandik oso hurbil, eta, gainera, ez daude ordenaturik. Hori dela eta, ontziaren forma hartzen dute.	Partikula txikiak ordenarik gabe eta elkarrengandik urruti daudenez, mugitzeko erraztasun handiagoa dute. Ondorioz, forma eta bolumena aldatzen dute.	Partikula txiki horiek ordenatuta eta elkarrengandik nahiko hurbil daude.



- 4 Hauta ezazu hiru egoeretako bat, eta osa ezazu definizio bakarra, hari dagozkion bi adierazpenak lotuz. Lagundu zure testutxoa irudi batez.